

2022ko EKAINAK 11 BAIONA

JEAN FRANCOIS MIGNARDen Hitzartzea

Giza Eskubideen Liga

32 urte ! 32 urte Jakes Esnal eta Ion Parot kartzelan direla, kartzelan arbitrarioki. Hemen naiz, Giza Eskubideen Liga, Bake Artisauak eta Bake Bidearekin batera.

2011tik bereziki, Aieteko Konferentzia eta ETArekin borroka armatuaren bukaeran. Michel Tubianaren inplikazioarekin, ETAk bere armak itzuli zituelarik ere, giza Eskubideen Liga Luhuson ere izan zen 2016ko abenduan, jendarte zibileko kideek Estatu frantsesaren gabeziak konpentsatu zituztelarik.

Eragile guzti hauekin batera, « Bakearen Arriskua » deialdia egiten du eta Euskal Bake prozesuaren kuadroan eginiko iniziatiba guztietan parte ere.

Beraz 32 urte, Ion eta Jakesek kartzela pairatzen dutela nahiz eta bidezko frantses legedi baten arabera, kanpoan egon behar luketeen.

Bidegurutze batean gira gaur, eta egiaren ordua heldu da.

Ohargarria da, prozeduren inguruko neurri aldagarriekin, epaileek askatze hauek oztopatzen dituztela. Guzti hau, frantses estatu baten ezaxolagabekeriaren begipean, gor eta itsu engaiatua giren bake prozesu blokeatu baten aitzinean.

Ez gaitezen tronpatu, Ion eta Jakesen egoera jasangaitzaz gain, Euskal Herriaren etorkizuna ere jokoan dugu gaur.

Gaur Baionan, hemen giren elkarte, erakunde eta iniziatiba hontako partaide guztiok frantses justizia eta gobernuari dei egiten diogu, Estatu mendeku bat deitu behar dugun egoera hontatik ateratzeko eta euskal gizartearekin bat egiteko. Heldutasunez engaiatutako bake prozesu batean gizarte honekin bultzada berri bat emateko.

Michel Tubianak erran bezala,

« Egoera batzuk mendeku bezala bizitzen dira, kartzela zigorraren zorrotasunean eta zigor hauek iraunazteko borondatean legediaren gainetik. Tratu honek egiazko motiboak zointzu diren galdegin arazten digu. Ekintzak pausuz pausu aitzinatzea ulergarria da, baina blokeo egoera bat mantentzen bada haserreak itzuliko dira. »

Inoiz baino premiazkoagoa da !

Jakes eta Ion askatu behar dira !

Segi dezagun bakearen bidean !

Perspektiba hontan Giza Eskubideen Ligak engaiatua izaten segituko du eta bere ardurak hartzen euskal gizartearekin batera.